

# PuLunPe

166. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkia

Beltza mintzo da ibaiez



Ezagutu ditut ibaiak:

Ezagutu ditut ibaiak mundua bezain zaharrak  
eta giza zainetako giza odolaren jarioa  
baino zaharragoak.

Ibaiak bezain sakon bihurtu zait arima.

Bainatu naiz Eufratesen egunsentiak gazte zirenean.

Eraiki dut nire aterpea Kongo ertzean eta loa ku-  
lunkatu zidan.

Ikusi dut Nilo eta haren gainean eraiki piramideak.

Entzun dut Missisippiaren kantua Abe Lincoln

New Orleansera jaitsi zenean, eta ikusi dut  
bere bular lohitsu urre bilakatzen ilusentiz.

Ezagutu ditut ibaiak:

antzinako ibai ilunak.

Ibaiak bezain sakon bihurtu zait arima.



# Virginia Yaben Oiartzun Egillor eta Zigandako banatzailea

Eskualdeko herririk txikienetarikoa dugu Egillor, 12 biztanle besterik ez baititu. Hala ere, Virginiarengana joan garenean, herriko sarreran bizitasuna sumatu dugu, han ziren haur, heldu eta zaharrak. Ziganda eta Egilloren arteko paseoa egiten ere baziren batzuk. Bi herri hauetako aldizkari honen banatzailearekin hitz egin dugu:



## **Hemen jaioa zara zu?**

Bai, ama hemengoa zen, eta aita Beuntzakoa.

## **Baina lan Iruñean egiten duzu?**

Bai, nire ahizpak Iruñera ikastera joan ziren eta han bizi izan ziren erresidentzia batean, baina ni hemen geratu nintzen bizitzen. Ohituta nago autoa hartzea, eta ez zait ezer kostatzen leku batetik bestera ibiltzea. Batzuek urrun dagoela diote, baina erreferentziak ezberdinak direla uste dut, niri ez zait urrun egiten.

## **Eta azkenean hemen geratzea erabaki zenuen?**

Bai, egia da ez nuela pentsatu Iruñean geratzea, hala suertatu zen eta hemen nago orain. laz ezkondu eta hemen bizi gara.

## **Eta gustura zaudete Egilloren?**

Bai, niretzat oso eroso da herri txiki batean bizitzea, ohituta nago. Egia da herrian ostatu bat izatea gauza garrantzitsua dela, giroa sortzen du. Horregatik Ulzamara joan izan gara normalean, Lizasora bereziki. Hemen ostatu bakarra daukagu, Beuntzan.

## **Kanpin berriarekin jende gehiago etorriko da alderdi honetara?**

Ba, hala espero dugu! Itxaropen handiak ditugu. Jendea hemen bizitzea eta hemen lan egitea ez da askotan gertatzen; eta, beraz, poztekoa da norbaiti halako aukera suertatzen zaionean. Ostatu bat egonen da, eta bai gazteendako bai helduondako elkargune bat izanen da. Bailarako jendea, behintzat, elkar ikusteko aukera izanen da.

## **Euskararen egoera nola duzue?**

Haur eta gazte guztiek euskaraz dakite, eta zaharren batek ere bai. Hala ere zaila egiten da euskaraz aditza.

## **Pulunpe Egillor eta Zigandan banatzen duzu, ez dira etxe asko izanen...**

Zigandan 10 eta Egilloren 4. Haurrekin paseotxo bat eginez egiten dugu banaketa, eta saiatzen gara ahalik eta lasterren egiten, aldizkariak iristen zaizkigunean.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

**Emaila: [pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)**

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira 2017ko Irailaren 1ean bidalia

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra

# KULTUR JARDUERAK ACTIVIDADES CULTURALES

## Euskal dantzak

Ikasturtearen Kuota Cuota curso .....				30€   35€*
<b>Haumak Infantil</b>	<b>Zisumitz</b>	<b>4-13 urte</b> 4-13 años	<b>Ostirala Viernes (bakiak)</b>	<b>16:45-17:15</b>
Ikasturtearen Kuota Cuota curso .....				45€   50€*
<b>Haumak Infantil</b>	<b>Zisumitz</b>	<b>4-13 urte</b> 4-13 años	<b>Ostirala Viernes (haundiak)</b>	<b>17:15-18:15</b>
• 10eko taldeak gutxienez. Grupos mínimo de 10.				
Ikasturtearen Kuota Cuota curso .....				30€   35€*
<b>Haumak Infantil</b>	<b>Olague</b>	<b>4-13 urte</b> 4-13 años	<b>Ostirala Viernes (bakiak)</b>	<b>18:30-19:00</b>
Ikasturtearen Kuota Cuota curso .....				45€   50€*
<b>Haumak Infantil</b>	<b>Olague</b>	<b>4-13 urte</b> 4-13 años	<b>Ostirala Viernes (haundiak)</b>	<b>19:00-20:00</b>
• 10eko taldeak gutxienez. Grupos mínimo de 10.				
Ikasturtearen Kuota Cuota curso .....				48€   50€*
<b>Helduak Adultos</b>	<b>Eritze</b>	<b>Asteartea Martes</b>		<b>18:45-20:15</b>
<b>Helduak Adultos</b>	<b>Olague</b>	<b>Ostirala Viernes</b>		<b>20:00-21:00</b>
• 15eko taldeak gutxienez. Grupos mínimo de 15.				

## Ehorziri lanak - Bolillos y vainica

Ikasturtearen Kuota Cuota curso .....		135€   155€*
<b>Lamaintzar</b>	<b>Osteguna Jueves</b>	<b>16:00 - 19:00</b>

- 8ko taldeak gutxienez. Grupos

## UDAKO ESALDIA

UXUE ALBERDI, BERUETEKO PESTETAN, BERTSO BAZKARIAN:

“Zuek basatiak  
bazarete nik  
maite dut basoa”.

### Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari buruzko informazioa

Urtero bezala Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hainbat kultur eta kirol jarduera jarriko ditu abian. Kirol jardueretako dagoenien teknikiariaren postu uztea dela eta, kirol jardueren kudeaketa eta hauetan izen emateko epeak pixka bat atzeratuko dira. Baina laster bidaliko da kirol jardueren inguruko eskaintza, iazkoaren antzekoa izango dena.



### IKUSI YOUTUBEN ORGIN EGINDAKO KONZERTUA.



Udazkenean. Concerto Blanca Inés y compañía. Robleal de Orgi. 27 agosto 2017

\*Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...

### ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!

Email bidez informazioa jasotzeko: [kulturmuz@gmail.com](mailto:kulturmuz@gmail.com)





## Egurrezko talla · Talla de madera

Ikasturtearen Kuota Cuota curso ..... 95€ | 105€\*

**Alkatz** Osteguna Jueves 19:00-21:00

• 8ko taldeak gutxienez. Grupos mínimo de 8.

## Eskulanak · Manualidades

Ikasturtearen Kuota Cuota curso ..... 135€ | 155€\*

**Berriete** Asteartea Martes 18:30 - 19:30

• 8ko taldeak gutxienez. Grupos mínimo de 8.

## Antzerkia · Teatro

Ikasturtearen Kuota Cuota curso ..... 95€ | 105€\*

**Larraitzar** Astelehena Lunes 20:00 - 22:00

• 8ko taldeak gutxienez. Grupos mínimo de 8.

## Paleak birziklatzen (mahaiak, aulkiak...) · Reciclaje de palets (mesas, sillas...)

Ikasturtearen Kuota Cuota curso ..... 95€ | 105€\*

**Alkatz** Astelehena Lunes 17:00 - 19:00

• 8ko taldeak gutxienez. Grupos mínimo de 8.

## Tailerrak Familian · Talleres en Familia

Ikasturtearen Kuota Cuota curso ..... 75€ | 85€\*

**Lantz** Asteartea Martes 17:00 - 18:30

• 8ko taldeak gutxienez. Grupos mínimo de 8.

### 2017an ALBISTE IZAN EZ ZIREN ATENTATUAK

NON	HILDAKOAK
Afganistán	854
Irak	652
Siria	602
Somalia	310
Pakistán	285
Nigeria	267
Egipto	171
Mali	119
Yemen	113
Filipinas	95
India	88
Turquia	76
Chad	49
Rusia	48

19:00 **LANTZ**

22

GAZTELERRAZ



**ANTZERKIA**  
**TXORIBURU EL RAPER O CASERO**  
SERGIO SALINAS

"Bere inifarragatik borrokatu" zuen 50. hamarkadako nafarroako gizon baten istorioa. Antzerki frikora erakusten duen ikusizko honetan urondo adar baten laguntza bakarrekin bidaiatuko dugu irudi eta atmosfera desberdinetatik. Ikusizko sator eta barregari hau publikoaren hartu-emanez eta musikaz beterik dago, zuzeneko musika, "jota-rap" ean abestutako istorioa.

19:00 **ERITZE**

29



**KONTZERTUA**  
**HAIZE HARI**

Kontzertu bonetan Haize Hari taldeak interpretazio pertsonalean egindako estilo desberdinetako obra armoniko eta freskuen bilduma eskezikiko dugu. Zure zain gaudel!

## Larraintzarko eskolako euskara proiektuari begira

Ikasturtea hasia dugu, eta aurten Ultzaman lan handia egin nahi dute gure hizkuntza sustatzeko. Aurreko alean aurkezpena egin genizuen eta oraingoan zuzendari berriarekin eta Sortzengo arduradunarekin hitz egin dugu. Heldu diren asteetan berri gehiago izango ditugu gai honen harian.



### Beatriz Irurueta, eskolako zuzendari berria

#### **Zer erronka aurkitzen duzu zuzendari berri gisa?**

Zuzendari izan behar zarela erraten dizutenean, ideia, helburu eta erronka berri asko etortzen zaizkizu burura (bizikidetzak, euskara, osasuna, integrazioa, berdintasuna, aniztasunaren trataera...), baina argi izan behar dudana da pausoak poliki-poliki eman behar direla.

Helburu guzti horiek lortzeko, elkarlana ezinbertzekoa da, oso garrantzitsua iruditzen zait familiariekin, ikasleekin, inguruko eragileekin, hau da, eskolarekin harreman zuzena edo zeharkakoa dutenekin lotura estua izatea eta denak ildo beretik joatea.

#### **Nola ikusten duzu euskararen erabileraren egoera eskolan?**

Eskolan, euskararen erabilerarekin nahiko kezkatuta gaude, ikasleen artean gutxitan egiten dute solas euskaraz, eta horrek arlo akademikoan eragin zuzena dauka.

Klasean daudenean euskaraz egiten dute, baina klasetik atera bezain pronto (pasabidean, jantokian, patioan...) gaztelaniaz hitz egitera pasatzen dira, euskararekin ia-ia ez dute erlaziorik. Argi dago egoerari buelta emateko zerbait egin behar dela, eta prozesu horretan gaude. Espero dugu denon artean helburu hori lortzea eta hemendik gutxira gure ikasleak euskaldun eleanitzak izatea.

#### **Zer egin daiteke horren aurrean?**

Egoera nahiko kezagarria da, euskaraz egiten ez badute, ez dute hizkuntza menperatzen eta, ondorioz, emaitza akademikoek okerrera egiten dute. Guzti hori kontuan hartuta eta egoeraren

inguruko hausnarketa egin eta gero, eskola mailan ekintza eta kanpaina dezente egin dira azken urteetan (euskararen eguna, super-heroiaren kanpaina...).

Orain bertze pausu bat eman behar dugu: eskualdean hizkuntza proiektu berri bat garatuko da. Horretarako eskola komunitateaz gain, udaletxe, komertzio, herri, biztanle..., alegia, inguruko eragile guztiak inplikatu dira eta denon artean euskarari bultzada bat emango diogu.

Helburua bada euskarak beste hizkuntzekiko berdintasun erreala lortzea, orduan, euskarak eskolako hizkuntza izan behar du.

#### **Nola inplikatu genezake eskolaz kanpoko mundua?**

Ez da lan erreza izango, baina uste dugu jendea/herria alde dugula, eta horrek asko lagunduko digu. Aipatutako hizkuntza proiektu hori ez da egun batetik bertzerara egingo, hainbat urrats emango dira: lehenbizi eskualdean proiektuaren nondik norakoak azaltzeko aurkezpenak egingo dira, sentsibilizazio kanpaineekin jarraituko dugu eta behin egoeraren diagnosia egin dagoela, ekintza zehatzak planteatuko dira.

Horrelako proiektu bat aurrera eramateko bidean ez ditugu oztopoak jartzen ahal, hori dela eta ahalik eta erraztasun gehien jarriko ditugu, eta ahalik eta gehien hurbilduko gara eskualdeko txoko guztietara, jendea animatu dadin.

Ez dut aukera galduko eta Pulunpe aldiriko irakurleei esango diet animatzeko, proiektuan parte hartzeko eta hurbiltzeko. Etorkizunean jasoko da uzta, eta ikasle euskaldun eleanitzak izatea lortuko dugu. Non gogoia, han zangoa!





# Sortzen

EUSKAL ESKOLA  
PUBLIKO BERRIAREN  
ALDEKO ELKARTEA



## Sortzen Ikasbatuazekin berriketan

### ***Nola koordinatzen dituzue proiektu hauek?***

Tokian tokiko hizkuntza-proiektua martxan jarri nahi duen eskolarekin edota udalarekin hasten gara lanean. Proiektua garatzeko hezkuntza-komunitatearen gogoia eta konpromisoa ezinbestekoak dira, eta abiapuntu horretatik herri eragileengana egiten dugu jauzia, horien inplikazioa bilatuz, hori baita gure proiektuaren berezitasun nabarmena eta gakoa: eskolak eta herriak eskutik egitea bidea ikasleak, haur eta gazteak euskaldun eta eleaniztunak izan daitezen.

Proiektuaren nondik norakoak aurkeztu ondoren prozesua garatzeko behar diren bitartekoak sortzen dira, prozesuaren ardura hartuko duten batzordeak, eta horiek prozesua garatzeko plangintza egingo dute. Sortzen Elkarteak edo zuzenean edo zeharka (eskola eta herriak erabakitzen duenaren arabera) egiten du proiektuaren jarraipena eta dinamizazioa.

### ***Beste esperientziak***

IEE Hizkuntza-Proiektua Bizkaiko Dima herrian eta Donostiako Egia auzoan burutu diren esperientzia pilotuekin abiatu eta gorpuztu da. 2012-13 ikasturtean hasi eta amaitzen ari diren esperientzia pilotuak izan dira. Dimako herri eskolak pasa den ekainerako IEE hizkuntza-proiektu berria bukatu eta idatzi du, eta era berean Dima herrian urteotan burutu den prozesuaren emaitza gisa herrirako hizkuntza plana martxan dago, eta, horretarako, eremu ezberdinetan eragingo duten baliabideak sortu dituzte. Bidean dira eta pozik. Egian Aitor Ikastolan 2017-18 ikasturte amaierarako izango dute hizkuntza-proiektua berritua. Auzo mailan eragileen batzorde zabal bat martxan da auzorako hizkuntza plangintza kudeatzen ari dena dagoeneko emaitza oso txukunekin (Egian euskaraz bizi nahi dut ekimena...).

Horrez gain, Uharten abiatu genuen prozesua eta Donostiako Martutene auzoan ere martxan jarri da proiektua iazko ikasturtean, baita Ultzaman ere.

Hainbeste aurkezpen egiteko ere deitu digute herri ezberdinetatik azken urteotan, IEE proiektua eza-gutzeko gogoz. Halere, Sortzenen konpromisoa proiektu honen ardura hartzean bikoitza izan zen: batetik, esperientzia pilotu bi abiatzea gure oinarri teorikoa praktikara eramateko bideak urratzeko; eta, bestetik, bide hori egin ahala, eta horren emaitza gisa, dokumentu-gida bat sortzea Euskal Herriko edozein txokotan IEE Hizkuntza-Proiektua garatu nahi duen edozeinek erreferentzia gisa erabili ahal izan dezan.

Lan hau bukatzen ari gara eta gure asmoa da 2017. urte bukaeran dokumentu hori publikatzea.

### ***Uharteko Patxi Morenok esan zigun haien proiektua gehiegi luzatu zela eta indarra galdu zuela... Nola ekidin daiteke egoera hau?***

Uharte herrian IEE Hizkuntza-Proiektua aurrera eramateko, orain arte egindako proiektu pilotuak gure oinarri izan dira. Baina herri eta auzo bakoitza desberdina da, eta behar desberdinak asetzeko proiektuaren ardatz batzuk aldatu behar izan ditugu; horrek gauzak pixka bat moteldu ditu.

Bizkaiko Dima herriko eskola eta Donostiako Egia auzoko eskola D ereduak dira. Uharten berriz D, A eta G ereduak eskola berdinean daude. Errealitate honek proiektuaren ardatzak berriz diseinatze-ko beharra dagoela adierazi digu.

Hala ere, Uharteko diagnostia burutzeko azken faseetan gaude. Diagnostia egiteko bi urrats falta zaizkigu: irakasleekin eta guraso elkarteekin saioak burutzea, eskolaren eta herriaren hausnarketa sakona egiteko eta behar diren aldaketak diseinatzeko hasteko. Egitasmoa burutzeko pauso hauek oso garrantzitsuak dira, baina orain arte ezin izan ditugu aurrera eraman irakaslegoa eta guraso elkarteak lanez gainezka daudelako eta hitzorduak adostea zaila izan delako.

Egoera honi buelta emateko asmoarekin, berpizte lanetan hasi gara eta Uharteko jaiak direla probestuz, IEE Hizkuntza-proiektuaren kanpaina zabalduko dugu.

## “Arautzeko eta **sustatzeko** ordenantza”

Ultzamako euskara arau berriaren inguruko zenbait azalpen euskara teknikariaren hitzetan.



### **Zer azpimarratuko zenuke ordenantzari buruz?**

Zerbait nabarmentzen hasita, ordenantzaren izenburuan berean topatzen dugu ordenantzaren izaera definitzeko argibidea, arautzekoa izateaz gain, euskararen erabilera sustatzekoa ere baita. Hizkuntzen erabilera arautzeko lege edo dena delako bat ez da nahitaez hizkuntza hori babesteko; izan ere, Nafarroako Euskararen Legea ikusi besterik ez dago. Bistan da lege hori idatzi zuten lege-gile haien asmoan ez zegoela euskararen normalizazioa, euskararen erabilera mugatzea baizik, eta horrela euskararen gaztelaniarekiko menpekotasuna betiketzea.

Ultzamako udalaren asmoa, berriz, bi hizkuntza ofizialen erabilera normalizatzea da, baina euskarari lehentasuna emanaz bien arteko desoreka deuseztatuz joateko.

Nabarmendu beharreko beste gai bat da udalak zeharlerrotasunez landuko duela hizkuntzen tratamendua, hau da, “udal estamentu eta langile guztiek bere gain hartuko duten helburu gisa”.

### **Nolakoa izan da ibilbidea honaino?**

Udal ordenantza bat onestea gutxitan izaten da albiste, pil-pilean dagoen edo polemika sortzen duen gai bat arautzeko ez bada. Oso luzea da euskararen ordenantza onartua duten Nafarroako udalen zerrenda, hiru eremu linguistikoetako udalak dira, gainera. Ibilbidea luze samarra izan da, urtetan hutsune hori betetzeko beharraz ohartarazi dugu; baina, orain arte ez dio udalak gaiari heldu.

Horrek ez du esan nahi orain zerotik hasten garenik, inola ere. Ordenantzak ezartzen dituen arau asko aspaldi betetzen dira, beste batzuk betetze

bidean daude, eta beste batzuk ordenantza hau garatuz betetzea espero dugu.

Horretarako, ordenantzaren jarraipen batzorde bat osatuko da betetze maila aztertu, betetzen ez dena betearazi eta ordenantza bera unean uneko egoeretara egokituz joateko.

### **Zer pausu eman behar dira administrazioan normalizazioaren inguruan?**

Arestian polemika aipatu dugu, eta eztabaida gehien sortzen duen ataletako bat udal lanpostuak betetzeko lan-deialdietan eskatzen den euskara maila izaten da. Bi plano gurutzatzen dira deialdi horietan, biak kontuan hartzekoak: batetik, lanpostu bakoitzak izan behar dituen ezaugarriena, udal zerbitzuaren kalitatea bermatzeko eta zerbitzu hori jasoko duten herritarren eskubideak ziurtatzeko; eta, bestetik, deialdi horietara aurkeztu ahal izateko herritarrek duten eskubidea.

Bi plano horiek kontrajartzeak eztabaida faltsua sortzen du. Euskararen gaiarekin demagogia eginez, errenta politikoa ateratzeko, batzuek soilik bigarren planoari erreparatzen diote, eta lehenengoa atzendu egiten dute. Horiei berdina zaie euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatuko ez dituzten langileak kontratatzea.

Udal administrazioaren eginkizun bat udalerrian ofizialak diren bi hizkuntzen erabilera normalizatzea da, eta, euskararen erabilera normalizatu gabe dagoenez, haren egitekoa da euskararen erabilera sustatzea; horretarako, ordenantza honek XVI. kapitulu osoa eskaintzen dio sustapenari, eta, besteak beste, udalak urtero euskara sustatzeko plangintza eta aurrekontu bat prestatuko duela dio.



## EH BILDU, BIOENERGIA PLANTARI BURUZ:

# “400.000€ko faktura bikoitzak, ordainketa gurutzatuak, adjudikazio ilunak...”



**Uda bukatzearekin batera, “Ultzama kasua” ere itzuli da.**

**N**afarroako Parlamentuko ikerketa batzordea itzuli aurretik EH Bilduk prentsaurrekoan sakaketa larriak egin zituen: “Faktura bikoitzak, diru-laguntzak eskuratzeko udalaren erabilera eta kontratuen legearen araberrako adjudikazio ilunak topatu ditugu dokumentazioan” azaldu du Adolfo Araiz EH Bilduko bozeramaileak.

Alderdi abertzaleak argitaratu duenez, “UPNk kasua itxi nahi badu ere, aurkitutako datuek erakusten dute

oraindik ere badagoela zer ikertu eta zer argitu Ultzamako Biometanizazio plantaren erakuntza eta kudeaketan”.

Araizek horrela azaltzen zuen: “Eskuartearen dugun dokumentazioarekin galdera asko ditugu, UPNk erantzun beharko dituenak” adierazi du Araizek, “ikusi dugu sare bat sortu zela diru-laguntzak eskuratzeko non UPNko kide Patxi Perezek gobenatzen zuen udalaren eta enpresen arteko faktura trukaketak antzeman ditugu. Proiektuaren baldintzen erredakzioan parte hartu zuen enpresaren faktura bat topatu dugu, azkenean lanen adjudikazioa lortu zuen enpresarekin lotzen duena”.

Bozeramailearen irudiz, susmo guzti horiek konfirmatuko balira, “kontratuen legearen kontrako jardura larri batean egonen ginateke”.

Estatu mailako hedabide askotan izan du oihartzuna albiste honek, baina batez ere UPN eta Bilduren arteko hika-mika azpimarratu da: UPNk batzordea behin eta berriz ixteko eskatu ondoren, abertzaleen bozeramaileak orain “isiltzeko” exijitu zien. Sergio Sayas erregionalisten bozeramaileak horrela erantzun zion: Araiz jaunari ez zaio axola izan urtetan mila pertsona inguru, haurrak barne, hiltzea. Orain bere aurkari politikoen suntsipen publikoarekin jarraitu nahi du soilik beste modu batez pentsatzen dugulako”.

## Diamantezko ezteiak



*Hemen ageri zaigu familiako zenbait; etxean topatu genituenak.*

P.O

**P**edro Senosiain Etxarri eta Maria Luisa Artozki Marillac ditugu gaurko protagonistak, 1955eko azaroaren 23an ezkonduak. Aspaldi xamar ospatu zituzten Olagueko Etxezarrekoak diamantezko ezteiak. Egia errateko ia-ia bi urte. Pedro, Olaguekoa bertakoa eta Maria Luisa, Legasakoa, Bertizaranakoa. Maria Luisa neskato etorri Olagueko Estankora eta horrela ezagutu zuten elkar.

Pedrori bere ezkontzako egunaz galdetu diogu, eta hala erran digu, bere euskara xarmantean, Olagueko euskaraz baina Bertizaranako ukituekin:

Legasan ezkondu giñen eta bazkarie andrin itxin. Besta haundie in giñuen. Lengo usantzara.

Bazkal ondun dantza, Legasako plazan, eguna da laburxaukoa baña. Eta arratsin itxin, afal ondun, goizeko bortzak arte.

Eztei eguneko beste kontu franko ere kontatu dizkigu baina bertze baterako utzi beharko ditugu.

Hala ere, aipatu gabe ezin utzi bere sei umeak: Joxe Angel, Elena, Antonio, Amaia eta Aitor (Eta zaharrena, seigarrena, haurretan hila) Bortzak dira ongi.

Aunditz urtez Pedro eta Maria Luisa!



## “Orain segur ez dugula 25 urte goaituko **elkar ikusteko!**”:



Oraingo eta lehenengo argazkiak



**U**rte mordoia pasatu da Ultzamako eskolako D ereduko lehen bi gelak (1980 eta 1981ean jaiotako ikasle gaztetxoak) Irisarrira (Nafarroa Behera) txangoa egin zutenetik. Orduan Patxi Arbizu zen irakasle tutore moduan eta berak antolatu zuen beste irakasle batzuekin batera trukaketa. Han, beren adineko eta gaztexeago ziren bertako ikastolako hainbat lagun ezagutu zituzten eta beren etxeetan igaro zituzten egun batzuk. Bueltan, berriz, Irisarrikoek hemen egin zuten trukea eta Ultzama ezagutu zuten.

Haietariko bat Peio Urruty zen: orduan bere anaia Beñatekin etorri zen eta oraingoan familiarekin bueltatu da lagunak antzemateko asmoz: bere neska laguna Lorea eta bi alabatxo, Hegoa eta Gana. Beren abentura Ultzamara etorri baino hilabete bat lehenago hasi zen: udaletxera email bat bidali zuen, adieraziz, duela urte batzuk trukaketa egingdako lagunekin harremanetan jarri nahi zuela eta oroitzen zen izen batzuk emanez. Mezua Timoteok

hartu zuen eta segidan “irisarri” whatsapp taldea sortu zuen 1980ko kintoak oinarri hartuz: oso ideia ona izan zen gero 1981eko kintoak batu eta Peio ere sartu zen.

Familia Ultzamara iritsi zelarik ahal zuten neurrian saiatu ginen bateratzen, nahiz eta ez zen erraza izan: batzuk oporretan eta beste batzuk herriko bestetan zirelako... Eta azkenean bilkura egin zuten abuztuaren 15ean, Ultzamako tria-tloiaren helmugan.

Oso esperientzia polita izan zen, denak oso pozik egon zirelako eta egin zituzten planak datorren udaberrian Irisarrira bueltan joateko. Handik etorritako gaztetxo gehienak orain bertan bizi omen dira eta lana ere han egiten dute. Whatssap taldea mantenduko da eta asmoa da falta diren lagunak sartu eta horrela harremana mantentzea. Mila esker Peio eta familia zoragarriak egin diguzuen bisita sorpresagatik!

## Uda amaituta hiru berritasun handi

**Z**erbait azpimarratzekotan, hiru azpiegitura garrantzitsu berri izanen ditugu eskualdean. Alde batetik, Lizasoko Baserri Eskolako “Barraskilo proiektua”, geroago orrialde oso batean landuko duguna; bestetik, Atezko kanpina, eta hirugarrenik, Basaburuko haur eskola berria.

Uda osoa eman dute eraikitzen hiru proiektuetan, eta bakarra egonen da amaiturik ikasturte berri hau hasterako, hain zuzen ere, Basaburuko haur eskola. Jauntsarasko Oihanzabal ikastetxearen barnean egin dute, aterpea zena gelak bihurturik. Espazio berean egonen dira ikastetxea eta haur eskola, baina bi espa-

zio ezberdin dira, eta legalki ere bi eskola ezberdin.

Aroztegin, kanpina eraikitzen ari dira, eta bukatuta dagoenean zein forma izanen duen sumatu daiteke jada. Eraikin nagusia izanen denarekin ari dira lanean, eta baita lurrean terraiza antzekoak egiten, bertan kanpatzeko.

Hauek dira nabarmendu ditugun berritasunak, nahiz eta oraindik denbora dezente geratuko den bai kanpina bai Lizasoko “Barraskilo proiektua” amaitzeko. Beraz, oporretan denbora luze eman duenak sorpresaz hartuko ditu berritasun hauek.





## Gartzaron pilotaren etxea bihurtuta



**U**rtero bezala Gartzarongo esku pilota txapelketa martxan da. 33. txapelketa daukagu aurtengoa, eta, beraz, ederki egonkortu dela esatea zilegi da. Euskal Herri osoko pilotariak etorri dira aurten ere Basaburura, nafarrak gehienak, baina gipuzkoar ugari ere ari dira etortzen asteburuz asteburu. Arabar eta bizkaitarren bat ere jokatzeko ari da.

Ultzamako Buruzgain pilota eskolako kirolariak ere badaude tartean, eta maila polita ari dira erakusten. Etxeko txapelketa garrantzitsua izanda ez da gutxiagorako, nor berea defendatu beharko!

Uztailaren 23an hasi ziren lehenengo partidak, kategoria guztietan: umeak, haurrak, gaztetxoak, gazteak eta helduak. Oraindik jardunaldi batzuk geratzen dira txapelketa amaitzeko, ikusi beharko noraino iristen diren gure kirolariak.

## Mikel Beuntzaren garaipena Ttutturren

**M**endi lasterketez hitz egiten ari gara azkenaldian, eta gogoratuko duzue uda baino lehen Mikel Beuntza korrikalariarekin hitz egin genuela Saioa emndian lasterketa bat irabazi zuelako.

Bada orain, kilometro bertikalen Nafarroako txapeldun izan da, Intzan izandako lasterketan. Intzatic Ttutturre mendira igo behar ziren, eta bide horrek 1000 metroko desnibela dauka oso distantzia txikian, hau da, kilometro bertikal bat. Modalitate horretan da bereziki ona Mikel Beuntza, eta hala erakutsi zuen.

Ez zuen, dena den lasterketa bera irabazi. Aitor Osa gipuzkoarra izan zen azkarrena, eta Xabi Macias bigarren, baina Bizkaian dago federatua Xabi. Mikel Beuntza hirugarren sailkatu zen, baina lehenbiziko nafarra, eta beraz,

## EHNEren argazki lehiaketa



**E**HNE sindikatuak (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) argazki lehiaketa bat aurkeztu du, landa inguruaren egoerarekin zerikusia duena.

Bada bizitzarik landa ingurunean? Herrietan bada bizi-rik? Hutsik daude? Inor bada bertan? Nork mantentzen du bertako ingurugiroa? Zein lanbide daude bertan?

Galdera horien inguruko hausnarketa irudien bitartez jasotzea du helburu aurten EHNEren "Ardatza" aldizkariak antolatutako argazki lehiaketak. Bosgarren aldia da "Ardatza" aldizkariak argazki lehiaketa antolatzen duena, eta aurten, nobedade gisaa "Instagram" sare sozialean parte hartzeko aukera eskaintzen du, argazkiak igoz. Dena den, formatu klasikoa ere egonen da, inprimaturik bidaliz.

Irabazleentzako sariak ederrak dira, 1. saria Etxalarko Gainkoborda ostatuan 8 kiderentzako asteburuko egonaldia. 2. saria: Gurdik eskaintako produktuen saskia. 3 saria: Lezaun upategiak eskainta mahastietan ibilaldia gurdian, 12 kiderentzako. Irailaren 10a arte duzue denbora argazkiak bidaltzeko.

berarentzat izan zen kilometro bertikalen Nafarroako txapelketa.

### Irailaren 16an Nafarroa Xtrem

Iazko berritasun bezala etorri zen Nafarroa Xtrem, distantzia luzeko mendi lasterketa, eta aurten egonkortzeko asmotan, irailaren 16an izanen dugu. Zubirin abiatu eta Saioa mendi aldera joaten da, hortik aurrera kilometro ugari egiten ditu Lantz eta Anuen.

Ultzama aldetik, gainera, lasterkari ugari hartzen dute parte, lasterketa luzean zen laburrean. 67 km ditu lasterketa luzeak, 4000 metro positiboko desnibelarekin. Iaz 7 ordu baino gehiago behar izan zituen lehen gizonak, eta 9 baino gehiago lehen emakumeak, eguraldi oso txarra zutelarik.

## Parke mikologikoak 10 urte ospatzen ditu



**I**railaren 13an, Ultzamako Parke Mikologiko Ultzamako Udala parkeak 10. urteurrena ospatuko du, 2007ko irailaren 13an ateak ireki zituelarik. Hamar urte hauetan 30.333 baimen saldu dira, guztira, 23.301 eguneko baimen, 3.024 kanpokoendako urteko baimen, 2.964 bertakoendako urteko baimen eta 1.044 baimen zientifiko didaktiko.



**B**aimenen salmentatik sorturiko dirusarrera guztiak baliabide mikologikoa kudeatzeko erabili dira, honako hiru helburu argi hauekin:

1. Gehiegizko biltzaile pilaketa eta baliabidearen neurrigabeko ustiapena saihestea.

2. Bailarako zizak biltzeko praktika onak eta aprobetxamendu jasagarria sustatzea. Azken finean, Ingurumen Hezkuntzaren bitartez kultura mikologikoa sustatzea.


2. Ekonomia sortzea parkean sorturiko enpleguaren bitartez eta bailarako sektore turistikoa dinamizatuz.

Urteurrena ospatzeko irailaren 13 eta 14an II. Jardunaldi tekniko eta dibulgatzaileak antolatu behar dira "Baliabide mikologikoari balioa ematea eta kontserbatzea" izenburua dutenak. Jardunaldi horien helburua da mikologiaren egoera ezagutzea eta baliabideari balioa ematea; horretarako, gai horietaz asko dakiten estutuko adituak izanen ditugu, baita ideia berriak sortzeko lagungarri izan daitezkeen espe-

rientzia errealak ere.

Era berean, ondoren, irailaren 29an, parte hartzeko jardunaldi bat egingen da, "Nafarroako landa garapeneren eta mikologiaren aldeko apustua" izenburua duena; jardunaldiarekin hausnarketa gune bat sortu nahi da Nafarroan sektore horretan inplikaturik dauden pertsonen eta erakundearen artean, heldu diren urteetan gure komunitatean lehentasunezkoak izanen diren lan ildoak adosteko.

Eskerrak eman nahi dizkiete Nafarroako Gobernua-ri, Foresna Zurgaiia Nafarroako Baso elkarteari eta CI Nekazaritza eta Basogintzako eskolari.



Abuztuko euri kopurua eta tenperaturak

### Programa

Irailaren 13 eta 14ean oso jardunaldi interesgarriak antolatu dituzte. Asteazkenean "Baliabide mikologikoa arautu eta kontserbatzea" izango dute hizpide. Arratsaldean Ultzamako Parke Mikologikoaren esperientziari buruz arituko dira. 17:30-18:30 tartean mahai-ingurua izanen da.

Irailaren 14a, osteguna "Baliabide mikologikoa merkaturatzea" izenburua izanen dute jardunaldiek, eta "Nola merkaturatu zerbitzuak eta produktuak modu jasagarri batez" galdera erantzuten saiatuko dira. 16:45-17:15 tartean merkaturatze esperientzia izango dute hizpide Del Monte de Tabuyo enpresaren esku. Arratsaldean, mahai-ingurua, "Landa garapena eta aprobetxamendu mikologikoa bateragarriak dira?" izenburupean.



## Gaztanberari buruz

**B**ertakoa, bertakoa! Bertakoa lehenbiziko. Hori da Nafarroako idazle handiak, Aingeru Epaltzak, ora in berriki Noticias egunkarian esaten diguna.

Ultzamako gaztanberaren eguna izan zenekoa da testua. Eta gaztanbera hitza izan du hizpide oraingoan nobelista handiak.

Hitzak ez dira neutralak, esapideak ez dira ezdeusak... barnean bizitza daramate. Gure bizitza. Eta gure etorkizuna toki aundizetan da jokutzen. Honetan ere bai.

Eta joan den bi-hiru urte honetan, Pulunpetik eskatu izan dugu: bertakoa gaztanbera dela, betikoa, indar handikoa...eta Ultzamako gaztanberaren eguna zela ospatu behar zena, ez mamiarena. Azkenean, aurten, hala izan dugu.

DIARIO DE NOTICIAS EGUNKARIAN ATERATAKOA.

“Mamiaren Eguna”. Hainbat aldiz txartela ikusi, eta ikustearekin min. Zergatik “mamia” ahoratzera behartu, betidanik “gaztanbera” jan duten tokian? Ez da kontu hutsala. Nafar euskaldun aunitzek mendebaldeagoko euskarari dioten miresmen neurritz kanpoko ez dago hain urrutia haien gurasoen artean gaztelaniak pizten zuen lilura itxutik. Autogorrito zaharraren kutsua du autoerdeinu berriak.

## Gure medikua



Kanpoederra izaki, lehen eta orain, bere burua maite ez duena. Itomena sortzen du batzuegan bat ez etortzeak haur eta gazteek eskolan edo ikastolan ikasten dituztenak eta espazio publikoetan agertzen diren formak. Horrek ere bere lana egin du. Ezin aherentzi, bertzalde, etorri berri zenbaiten jarrera, ex novo aritzekoa, haiek mundura agertu baino lehen deusik -gordetzeko moduko deusik- izan ez balitz bezala. “Oinezkoentzako eremua”, “hiri barruan”... irakurri dut negu honetan euskal eremuko herri erdaldu samar batean.

Bertako euskaldun bakarrak 70 urtetik goitikoak eta 16 urtetik beheitikoak izanik, ez du ematen noizbait hautsitate katea berreraikitze jokabiderik zuhurrena. Trafiko seinaleek “gogoratzeko” eskatzen digute hemen, eta gure hiri eta herrietan dena da “kale”, baita gaur egun zaharrenen ezpainetatik “karrika” hitza ezabatu ez den toki bat baino gehiagotan ere. Horren ifrentzua dugu gure Mendialdeko zenbait tokitako biztanleen grina gero eta nabarmenagoa euskara estandarra bertako moldeekin zizpiztintzeko. Ze kasualitatea, guztiak dira azken urteetan hizkuntzaren bizitasuna hazten ikusi duten eskualdeak.

Norberetik abiatuta aiseago ematen zaio hizkuntzari haize. Zazpi urteren ondotik, zortzigarrenean norbait ohar-tu da Ultzaman besta ez zela galduan aterako “mamia” omendu beharrean “gaztanbera” goratzen bazen, aitzitik baizik. Ez da aldaketa ezdeusa. Mamia du. Mami esperantzagarria.

JASOTAKO



GUTUNAK

**U**rte asko eman dituzu gurekin eta orain erretiroa tokatu zaizu. Hainbeste urteren ondoren! Eta ematen du atzo etorri zinela Don Silvestre Baleztenak utzitako lekua hartzera, Basaburua aldera.

Aldaketa garaia ziren haiek eta zuk aldaketa hari atxiki zenizkion ezaugarri bereziak: hurbiltasuna, adiskidetasuna, xamurtasuna... profesionaltasuna atzendu gabe.

Etxe bakoitzean oroituko zaitugu zure maletatxo marroia-ekin; bertatik fonendoskopia eta errezetak ateratzeaz gain, adiskidetasuna eta irriparra ere ateratzen zenituela zirudien. Eta tenore tristeetan errukia eta bizipoza ere bai. Ez, berehalakoan ez dugu atzenduko “gure” Arantxa.

Nolabait eskertu nahi, nolabait azaldu nahi, eta gaur, hortaz, Pulunpen bitartez, gure esker oneko hitz hauek. Eta zure familiarekin eta gurekin aitzina, beti bezala, segi dezazula urte askoz!

LANKIDEEK BIDLITAKO TESTUA

# Latasako **geltoki** zaharra martxan dago berriz

## Proiektu berri honek Imotzendako elkargune eta erakusleihoa izan nahi du

Aspaldi handik pasatzen zen trena, urtetan bertan geratu da, itxoiten; eta, orain, bailararen erdigune, elkargune, denda, jatetxe eta askoz gauza gehiago izan nahi ditu. Lerro hauetan proiektu honen puntu interesgarrienak ikusiko ditugu.



### Proiektua

Latasara hurbildu ginen uztaileko goiz lasai batean eta bertan aurkitu genituen lanean udal langileak eta elektrikari bat. Josean alkatearekin hitzordua genuen eta berak azaldu zigun proiektuaren nondik norakoak. Portzierto, hasteko, momentuz izenik gabekoa... Orokorrean, erabilera anitzak izateko zaharberritzen ari dira geltoki zaharra. Finantza-zioa Ederbidea proiektuari lotuta egon da. Josean Iturraldek esan digunez, "Aurten proiektua martxan jarri dugu. Horretarako 3 langabetu kontratatu ditugu aurtengo deialdian obra hau egiteko.

Egia esan, nahiko lan eramangarria da, ez du sekulako zailtasunik. Halere egin beharra dago, ez pentsa: barrukoa konpondu eta apaintzea eta kanpoan zerbitzu desberdinak jartzea..."

### Kanpoaldea

Geltokiaren lorategian bi eraikin txikiago egonen dira: alde batetik, gordetegi txiki bat (bertan sartuko dira proiektu guztiarekin zerikusia duten materialak) eta, bestetik, komun publikoak. Eraikina kudeatzen duenak eramango du komun horien ardura.

### Ostalaritza:

Plater konbinatuak, bokatak eta barra jartzea da ideia, eta baita denda ere. Ez du Jauntsarasko Apeztegierriko formatua izanen, "mostradoretik barrura" egonen da. Zerbitzatzen duen pertsonak eskura izango ditu bertako produktuak, eta oinarriko produktuak ere eskainiko ditu. Denda txiki bat

izanen da. Komunak kanpoan egongo direnez, gordetgia ere kanpoan egonen da dendako eta sukaldeko gauzak gordetzeko.

### Kanpoko itxura:

Herri txiki bateko geltoki zaharra dugu begi aurrean, eta dagoen azpiegitura zaharberritzea egiteko probestuko da: "Eraikinaren kanpoaldean, trena kargatzeko ate handiak dauden horretan beirazko atea izanen dira. Eraikinak estalpe txiki bat izanen du barneko aldera.

### Jasangarritasuna

Proiektua gauzatzeko funtsezkoak izan dira Europatik etorri diren diru-laguntzak. Bide horretan mugikortasun jasangarria sustatzeko bizikletari garrantzia emanen zaio. Bizikletak alokatzeko zerbitzua egonen da eta beste zenbait zerbitzu ere: aparkalekua eta bizikletak garbitzeko eta konpontzeko gunea egonen da. Etorkizunera begira asmoa da Lekunberriko eta Iruztungo geltokiekin lotura izatea alokairu zerbitzuak.

### Plazaola eta Ederbideak

Plazaolaren bideak momentuz Andoain, Leitza eta Lekunberri lotzen ditu, eta Ederbidea proiektua Donostiara ailegatuko da etorkizun batean. Horretaz gain, Imoztik pasatzen den bidea Iruñera ailegatuko da. Guzti hori gutxi balitz, Latasako geltokia etorkizun batean lotune bat izan daiteke, hirugarren bide bat lotzen baitu: Bidasoako trenbidearena. Hiru linea horiek lotura izanen dute Donostia, Irun





## Plazaolako "planak"



eta Baionarekin. "Aurrera begira potentziala duen gunea da, zalantzarik gabe, gurutzatzen baitira Iruñetik Donostiarako bidea eta Bidasoatik barna Baionako bidea.

### Elkargunea

Kanpotarrendako eskainiko duenaz gain, Josea-nek azpimarratu digu "oso garrantzitsua" dela bertakoendako izango duen papera. Imozko biztanleendako gune erreferentziala izatea oinarrizkoa da, Basaburuan Apeztegi berri den bezala, bilgune bat izatea. Horri lotuta ere, bailararen "erakusleioa" izanen da: "Hemen antolatzen diren ekimenak argitaratu emateko, xendak sustatzeko..."

### Epeak

Aurtengo neguan bukatzea da helburua, eta eraiki-naren irekiera heldu den urteko udaberriarekin batera egitea. Taberna eta beste zerbitzuen kudeaketa eramateko beharrezkoa izanen da konkurtso publiko bat egitea eta horrek, nolabait, luzatuko ditu pixka

bat epeak. "Zaharberritzea da oraingo lehentasuna, eguraldi ona probestu behar dugu udazkena ailegatu aurretik".

### Baratzea

Hurrengo orrialdeetan irakurriko duzu zerbait Bizilore proiektuaren inguruan, baina Aizarozko Koldok eta Ainhoak mintegi handi bat eraiki dute bertako landare eta barazki ekologikoak eriteko. Azokaz azoka ibiliko badira ere, Latasako geltokian leku bat izango dute bertan baratze txiki bat jartzeko: "Imotzen egon ginen hitz egiten hemengo kultura, usadioak eta gastronomia mantentzeko proiektu honi buruz eta oso itxura ona eman zigun", kontatu digute.

Itxura ederra duen proiektua denez, etorkizun zoragarria opa diogu eta beti bezala, adi egonen gara ideia gorpuzten den heinean. Ez dugu uste trenik ikusiko dugunik bertan, baina seguru txirrindulari, oinezko eta bizilagun asko bai...









# URTEBETETZEAK!



MADDI



IOSUNE



ARHANE



JOANES



JUNE



## Julia Jaunarena, Latasako Garaikoko etxekoandrea

Gaur Imozko Latasan izan gara aspaldiko adiskide bat bisitatzen. Bi egun barne betiko ditu 88 urte, nahiz atzo, Santiago egunez ospatu. Hala egiten omen du urtero, Santiago egunez urtebetetzeak ospatu.



**E**a zer moduz galdetu diogu eta hala, ongi da-goela, baina lan asko egiteko ez dela gauza.

Eta horrengatik lan franko badut.

**Julia orain jende asko ikusten da lanik gabe.**

Bai? Lana badago. Ez dute lanik egin nahi. Askok ez, e!

**Lan neketsurik nahi ez.**

Ez dute ikasi bizitzen. Nik bezala ikasi izan balute bizitzen! Beharrak erakusten du! Gure denboran, lan asko eta, gainera, mantenu txarra. Ez zen ailegatzten jateko nahi adina.

**Zu zara senideetan zaharrena?**

Antonio zena zen zaharrena. Gero ni. Denak hamabi senide izan gara. Zazpi mutiko eta bost neskato.

**Zenbat bizi zarete?**

Neskatoak, nik uste, denak. Bi Ameriketara baitira, haien berririk ez dakit, eta hemen hiru, bost. (Julia, Rosita eta Manolita, Rosita Erriberako batekin ezkondu eta alargundua, Berriozarren) Eta gero mutiko bat, Eusebio. Horrela, denetara, sei.

**Zu Erasoko Mattikoneko bordan jaioa.**

Bai. Han jaio ginen senide guztiak, hamabiak.

**Non sartzen zineten hamabi? Borda ez da ba**

**handia.**

Bai, bazituen hiru logela eta sala. Gu neskatoak eta aita eta ama, bi goazetan baina gela berean. Gero mutikoak salan. Eta amona eta bere ahizpa beste gela.

(Ez dakit, baina kontu honekin, nago ez ote zaigun gela bat hutsik gelditu. Edo ez da hala, Julia?)

**Imoztik kanpo aritua zara lanean, beste nonbait?**

Bai, Iruñean, Paseo Valencian. Abokatu baten etxean, Ignacio Usechiren etxean; hiru urte egin nituen han.

**Han hiru urte egin eta etxera lanera.**

Bai, beti etxean lanean, edo Latasan. Latasako *Lopenean*, alorrean makinan, ultziak egiten, ongariak ateratzen...denetan. Eta gero *Portunean*. Bizimodua hor genuen. Joaten ginen bi ahizpak, Martzelina eta ni. Biak etortzen ginen. Gauerako, bueltan, Erasora, etxera; bata garbitu eta hurrengo egunerako sekatzten zen eta bata hura jantzi eta buelta *Portunera*. Urte franko egin nituen Latasako bi etxe horietan.

**Lan horiek noizbait utzi zenituen.**

Beharko! Ama zena hil zen-eta, nahiko lan banauken etxean. (1950. urtean hil zen eta, beraz, 21 urte zituen Juliak) Gero Eusebiok, anaia gaztenak, ikasi zuen bazkaria jartzen, eta ez egunero, baino hasi nintzen, berriz ere, Latasara etortzen.





Latasako Garaikoa eta Erasoko Mattikoneko borda

**Zenbat urte zenituen ezkondu zinenean?**

Hogeita hamar. Hogeita hamar urtetan ezkondu nintzen. Eta Paulinok urte bat gehiago.

**Eta non ezagutu zenuen Paulino zena?**

Hemen! Egunero kasik etortzen nintzen Latasara. Eta hemen, *Txuindon* bagenuen alor bat eta han aritzen nintzen behin baino gehiagotan lanean. Eta egun batez zirikatzen etorri zitzaidan, txantxetan bezala. Eta handik aurrera, hasi ginen, hasi ginen... ta akabatu genuen!  
Baina tokatu zitzaidan, gizon bat! Ona!!!

**Suerte izandu zenuen!**

Bai, Jainkoari eskerrak suerte handia izandu nuen, mutikoa! Sekula ez genuen izan hitz bat, bat bestea baino goragoa. Zoritxarrez, ez genuen umerik izan.

**Ezkondu eta non jarri zineten bizitzen?**

*Portuneko Etxeberrian*. Hor urte franko egin genituen. Erosi egin nahi genuen, baina Portuk ez zigun saldu nahi izan. Portuk esaten zigun: hori Genorena da. Eta Genok berriz, bazirela gu baino aurreragokoak, beren senide edo ilobez ari zelarik. Ez, ez ziguten saldu nahi izan.

**Eta Garaikoa nola etorri zen zuen eskuetara?**

Iruñeko batena zen. Eta ni etortzen nintzen etxe honetara egunero, leihoak irekitzera, asteburuetan kalfakzioa jartzera haiek etortzerako, eta holaxe. Eta egun batez: etxea saldu behar dugu, erostunen bat bazeneki!

Eta gu etxeren bat nahi eta horrela hasi ginen tratuan. Paulinok egin zuen tratua, eta 7 edo 8 miloi pezeta pagatu genituen, ez dut ongi gogoan.

**Paulino gizajoa gazterik hil zen.**

Bai, hala da, hiruetan hogeitaz urtetan. Nolako nahigabea! Eta ni hemen, alargun!

**Gero, ondoren beti bakarrik, hemen.**

Bai, baina senideren bat beti hemen izan dut: Migel eta Joakin eta...

**Eta apezka, Don Jose Maria Aizpurua ere izan duzu hemen.**

Baitare, baitare, bere azken urteetan, zahartutakoan; bazkaldu eta afaldu gure etxean. Lo eta gosaria bere etxean egiten zuen.

**Gizon ona zen.**

Bai, hala zen, baino behin edo beste enfatzen zen. Zakurrak perratzen bidaltzen nuen. Badakizu, beti bakarrik egona eta berea bakarrik ikusten zuen hark. Oso ezindua zenean Iruñera joan zen apezken xahartegira, *Buen Pastor* edo, horrera.

Hemen utzi dugu Julia, beti bezala arin eta alai. Irri-parra zein axal duen Juliak! Ez da ba izanen lanik egitea egokitu ez zaiolako, bizitza erraza izan duelako! Honek bere baitan du alaitasuna eta goxotasuna.

Julia! Eta iraun dezala!

**Aste guzirako ogia**

**E**a ogia etxean egiten zuten galdetu eta hara zer kontatu digun Juliak:

Bai, bezperatik orantza berritu egiten zen. (Ogi zaharreko zati bat behar izaten zen horretarako, eta ura)

Gero biharamunean, jarri ontzi batean ur epela, oramahaian irina, orantza gainera eta gatza. Eta nahasi, nahasi, nahasi, egiten zen ura poliki-poliki botetaz, oreka bihurtu artio. Dena ongi nahasi eta oreka ongi egin ondoren, maindire eta manta batekin estaltzen

zen. Ordu pare bat behar izaten zuen oreka igotzeko, harrotzeko.

Bitartean, labearen egur lehor-lehorra jarri, su eman eta ongi berotu. Gero, labetik errautsa atera, eta ongi garbitu.

Labea prest-presta zenean ogiak sartu. Erretzeko zenituen ogi zatiak endaian hartu eta barnera. Labearen beste ordu bat behar izaten zuen. Lan handia zen ogia egitea.

Beharrik astean behin egitea aski izaten zen!

**HIZTEGIA**

EHIZILARI: Ehiztari.

OREA: Masa

ORAMAHAIA: Irina eta ura nahasteko erabiltzen zen

mahaia.

ORANTZA: Levadura

ENDAIA: Ogiak labearen sartzeko erabiltzen zen pala zabala (Labandaia ere esaten zaio honi)

## ARANTXA MARTINEZ

### “Familietako **belaunaldiak** ezagutu ditut lanean : amona, ama, biloba...”

#### ***Aurre-jubilatu berri zara, zer moduz daramazu?***

Ba, egia esan, sentimendu oso nahasiak ditut; mundu guztiak “jubilatuz zara, zeinen ongi, ezta?” esaten dizu, baina aldaketa handia izan da, tris-tura sentitzen dut eta baita pena handia ere at-zean geratzen diren guztiengatik. Badakit den-borarekin pasatuko zaidala, baina orain horrela sentitzen naiz. Barneko korapiloa hor dago, ezin uka. Hogeita hamabi urte izan dira hemen lanean eman ditudan eta familietako belaunaldiak eza-gutu ditut lanean : amona, ama, biloba...

#### ***Medikua izanda, oso erlazio intimoa sortzen da jendearekin, ezta?***

Bai, gainera gehienetan gaitza fisikoa izateaz gain, psikologikoa ere bada eta laguntza asko es-katu izan didate eremu horretako: lagun bizi-zari buruz entzun, haien sentimenduak ezagutu... Horrek garrantzi handia du.

#### ***Ez zara Basaburuan beti egon lanean, ezta?***

Hasieran larrialdiak egiten aritu nintzen herri handi batean, geroago Txantrean, pediatria egi-ten egon nintzen beste leku batean, ordezkapen asko ere...

#### ***Hiriek in alderatuz, desberdin egiten da lan herri txikietan?***

Egia esan leku nahiko txikietan egin dut lan, bai-na pentsatzen dut ez dela berdin, gainera hona etorri nintzenean hemen bizitzera behartua ze-unden; seme zaharrena, adibidez, txikitatik Ba-saburuko eskolan eta gero Larrainzarren aritu da...

#### ***Urte hauetan asko aldatu al hurbileko medikuntza?***

Erabat aldatu da, goitik behera. Hasieran zain-tzak egunero egin behar genituen, “guardiak”. Oporretan izan ezik, urtean hamaika hilabetez prest egon behar zinen lanerako, eta, noski, te-lefono mugikorrik ezta “busca” gabe... Beruetera joaten nintzen, bisita pertsonal bat egitera, de-magun, eta kontsultan karteltxo jarri behar non zeuden esanez... Halere jendea segituan jabet-zen zen non zeunden, ez pentsa! Horretaz gain, zorte handia eduki nuen Tere erizaina lagun iza-teaz... Ekipo “earra” egiten genuen biek... Halako leku txikietan ezinbestekoa da elkarlana eta oso harreman ona genuen.

#### ***Eta jendeak “espeziatan” ordaintzearena?***

Noizean behin urdaiazpikoren batekin edota bil-dotsen batekin ailegatzen zen jendea... Eta ez pentsa, orain arte askok mantendu dute ohitura hori... Hona etorri nintzenean jendeak “igualak” ordaintzen zituen, demagun 50 pezeta gehiago tratu diferentea izateko... Orain arraroa iruditzen zaigu, baina lehen oso ohikoa zen hori.





# Marrakuku



Marrakukua:  
urintzuegia, eta taloa ongi erre gabea.

**Kanpoan denbora errea. Semea sukaldeko freskotasunean berendatzen ari zen. Egitekorik ez eta sukaldean, mau, mau, mau, jan eta jan.**

**A**tte agertu zen, eta piura artan ikusi zuenean, hala bota zion, amorru koxkor ezin disimulatu batez:

*Mau, mau, noiz akatu bia'uk jatez! Hau marrakukue!*

Semeak kasurik ez, mau, mau eta mau, eta pentsamendua burura:

*Attun honek noiz al'din biar ote'ik!*

Ez zen atrebitu boz goraz esatea, baina semearen begirada axolagabea ere filmatzeko modukoa izan zen.

Beste garai batzuk ziren haiek, hizkuntza indarrean zegoena, onomatopeiak eta irainak gure hizkuntzan hitzetik hortzera zebiltzanean. Irain gogorrak, ertainak, beratxak, eta beratx-beratxak. *Marrakuku* deitu zion attek eta zer inporta du? Irain belaxka bat besterik ez zen eta! Mau, mau eta jaten segi: *alde'iñen dik nai dunian, pakian utzi biar ez, dedio!*

Beste garai batzuk ziren haiek, garai gogorrak, lan gogorretan zaildutako jendea, jende fierra zuriren batzuk kenduta, baina hizkuntzarendako graziaren tenoreak, onomatopeia, zehaztasuna, xamurtasuna eta irria gure hizkuntzan txertatuak; multi-irainen denbora, kasu bakoitzari dagokion tamainakoa, ia-ia maitasunaren hertzetik has eta gogorrenerainokoak. Amorrazioz botako irain gogorretik hasi eta irringarri gertatzen zen irain samurreraino, jolines!

Bai, bai, marrakukue! Baina nik kasurik ez. Urdaiazpikoa ederra zegoken!

Ez zekiat marrakuku bat erre ardo frexkoarekin batean jateko edo Mielekin tabernara joan, tabernariak Iltzarbetik ekarri ardo frexkotik tragoxka bat hartzera. Azken hau eginen diagu noski; gaur ere denbora errea zegok!

## HIZTEGIA

EGURALDI ERREA: Udako eguraldi kiskalgarria.

PIURA: itxura txarra

ONOMATOPEIA: Hots batetik sortutako hitza: miau, taka-taka, ji-ji...

IRAINA: Norbaiten izen onaren kontrako hitza.

HITZETIK HORTZERA: bat-batean zerbait esan edo

erantzun.

ERTAINA: Artekoa, bitartekoa, erdikoa.

BELAXKA: Biguna.

ZURIA. Jende zuria. Jende alperra.

TENORE: garaia, denbora.

HERTZA: Bazterra

## Marrakukua dela eta

-Marrakukue. Ia-ia ezinezkoa egiten zait u baten ondoren a jartzea. Ezinezkoago bi u-ren ondoren. Horrela ikasi genuen gainera, eta horrela egiten da gainera Euskal Herriko ia herri gehienetan. Denok badakigu zer den marrakukua eta norbaitek ez baleki, zera esanen nioke, barnean gazta beratua duen artopila dela (Azkuek ere badakar eta itzulpena horrela egiten du: empanada de maiz con queso. Jakina, gazta beratua izaten da.

-Irainak ikasi. Hizkuntza bat ongi jakiteko irainak botatzea ere behar beharrezkoa duk, gazte! Nik irain ikastaro batean apuntatzera konbidatuko nitizke oraingo gazteak, graduazioak, hitzak modulatzan, z, x, to, txikigarri eta handigarriak..... ikas ditzaten, ongi mintzatzen ikas dezaten, alegia. Ongi mintza-tzeko, gezurra badirudi ere, gaizki mintzatzen ere jakin behar baita. Eta, ez naiz euskañol eta horrelako aldrebeskeriez ari.

# Hatortxurock Jaialdiari buruz hiru **galdera**



Aurtengo udan ospatu dute Hatortxuren 20. edizioa, Lakuntzan. Inoiz baino jaialdi handiagoa izan da : milaka pertsona, 4 egun, milaka bolondres... Gure eskualdeko Apeztegierrikoak ere bertan egon ziren lanean. Horretaz gain, Basaburuko Iker Isiegasek antolakuntzan urte osoan egin du lan. Berari hiru galdera orokor hauek egin dizkiogu.

## ***Ze balorazio egiten duzue?***

**H**iru aste pasa dira eta oraindik ere egindakoa eta lortutakoa barneratzen ari gara. Balorazioa oso ona da. Errepikaezina izango zela esan genuen. Eta lortu egin genuen. Ahaztezina izango zela esan genuen. Eta ahaztezina izan zen. Milaka pertsona batu ginen Lakuntzan, lau egunez, euskal preso politiko, iheslari eta deportatuen egoera salatu eta haien senideei babesa agertzeko asmoz. Orru itzela helarazi dugu, gero eta gehiago garelara eta elkarrekin lanean jartzen garenean edozer lor dezakegula erakutsi. Giroa ere itzela izan zen; beraz, oro har, balorazioa oso ona da. Hala ere, badira onartu ezin ditzakegun gauzak ere. Tartean, salatutako bi eraso sexista (haietako bat lesbobofoa). Ezin dugu jarrearik onartu eta lanean jarraituko dugu guztientzako esparru librea izan behar duena sortzen.

Musikaren bitartez, jaialdi baten bitartez, elkartasun ekonomikoa eta salaketa ditugu helburu, eta aurtengo jaialdi erraldoiak, Euskal Herriak sekula ezagutu duen elkartasun jaialdi handienak, bi helburu hauek lortu dituela esan dezakegu.



## ***Jaialdi erraldoiek arazo asko izan ohi dituzte eta hauen eredia zalantzan dago, nola ikusten duzue zuek?***

**H**atortxu nik ez nuke jaialdi erraldoitzat joko. Jakina, neurri batean hala da: milaka pertsona bildu, hainbeste banda dagoenez musika taldeek denbora gutxiago dute jotzeko... Gurea, kontuan harturik helburu nagusia ekonomikoa dela (dispertsioaren salaketarekin batera), gure ekarpena egiten saiatzen gara hain ezagunak ez diren edo hasi berriak diren taldeei bultzada ematen, eta horiei mesede handia egiten die kartelan agertzeak beste kartel batzuetan tokia egiteko. Jaialdi erraldoi ezagunetan, talde horiek tratu txarra jasaten dute, kasurik onenetan doan jo behar izaten baitut; guk, berriz, beste jaialdi batzuetan kontuan hartzen ez diren irizpide batzuk lehenesten ditugu. Baina, gai horrek beste bi elkarrizketarako soka emanen luke.

## ***Zein dira jaialdi honen helburuak?***

**A**rgi eta garbi esateko, Hatortxu Rock bi helbururekin jaio zen 1999an: alde batetik, elkartasun ekonomikoa, urtero euskal preso politikoen senideei ematen zaiena urrunketak sortzen dituen gastu ekonomikoei aurre egiteko; eta, bestetik, euskal preso politiko, iheslari eta deportatuek eta haien senideen egoeraren salaketa.



## Miguel Iraizoz: “9 urterekin erosi nuen nire **lehen** autoa”

Eltzaburukoa sortzez, baina Zenotzen bizi da emaztea eta alabarekin. Motor artean aritu da txikitatik, baina herri kirolean ere, familiako tradizioari jarraituz, aritu da asko. Aurten ezin izan du Ultzamako rallyan gidatu, eta horretaz aritu gara berarekin.



### **Noiz hasi zinen rally lasterketetan?**

20 urterekin hasi nintzen, baina duela 3 urte auto bat alokatzeko aukera suertatu zitzaidan. Izan ere asfalto gainean egiten nuen lehenago, eta orduan lur gainera pasa nintzen.

### **Urtean zenbat lasterketa egiten dituzu?**

Euskal-nafar kopan 6 lasterketa dira, Focus mailan (Ford Focus autoarekin aritzen dira denak), baina gehiagotan ere aritzen gara, entrenatzeko ongi etortzen baitzaigu.

### **Garestia da rallyen mundua?**

Garestia da, bai, baina bakoitzak bere bizioak ditu; nik, adibidez, ez dut parrandarik egiten, oso noizean behin besterik ez. Eta gaizki ikusiak gaude rally gidariak, eta orokorrean autoak gustatzen zaizkien gazteak, baina aspalditik egon da afizioa hemen.

### **Ultzamako lur gaineko rallya izan zen uztailaren amaieran, baina ezin izan zenuen parte hartu, ezta?**

Aurten ez. Gainontzeko urteetan aritu nintzen, Ultzamako rallyaren lehen urtean hirugarren nafar sailkatu nintzen, eta hurrengoan bigarren. Aurten, beste auto bat alokatu nuen, baina ez zen nire gustukoa, eta ez nuen korritzerik izan.

### **Inbidia pixka batekin egonen zinen?**

Ikusten egon nintzen, eta kamioiarekin badaezpada, laguntzarik behar bazen. Baina hain urduri nengoen alde egin behar izan nuela, igerilekura joan, han pixka bat ibili, azkazal guztiak jan... Hala ere, aurten korrituko ez nuela esan nuen, haurra izan genuelako, baina gogo izugarriekin geratu nintzen.

### **Nola sortu zen Ultzamako rallya?**

Nik etxean rally bat izatea nahi nuen. Hori nire-tzat ona da, baina txarra ere bai. Hemen denak dira ezagunak, eta presio gehiagorekin gidatzen dut. Hala ere, kopilotu ikaragarri ona daukat, inori ez begiratzeko esaten dit, eta hala egiten dut. Ezagutu nuenean hala esan zidan: “ez dakit nola gidatzen duzun zuk, baina kasurik egiten ez badidazu gaizki ibiliko zara!”. Eta, hala da, nahiz eta bideak ezagutu berari kasu egin behar diot, oso ona da bera.

### **Zenbat auto izan dituzu?**

9 urterekin erosi nuen nire lehen autoa, 5.000 pezeta ordaindu nituen. Auto zahar bat, balaztarik gabekoa eta aspaldi ibili gabea zena, baina martxan jartzea lortu nuen. Geroztik ez dakit zenbat izan ditudan. Lasterketarako asko izan ditut, ez nuke jakingo zenbaki zehatza esaten. Duela 2 urte Formula bat erosi nuen, igoera rallyetarako, baina ez zitzaidan gustatu, autoa ni baino gehiago zen. Lehenengo igoera eginda, besteei deitu eta hala esan nien: “Jaso ezazue dena etxera goaz eta”. Nire alaba besoetan hartu nuen eta han utzi nuen lasterketa. Beldurrez aritu nintzen.

### **Alaba izan zenuenetik beldur gehiagorekin aritzen zara?**

Noski, zaila da ezer larririk pasatzea, autoa segurtasunez betea doa, eta guk ere aseguru daukagu. Baina geroz eta beldur gehiago daukat, zerbait pasatzen bazait emaztea eta alabaren ardura baitaukat.

### **Eta lan ere motor artean egiten duzu.**

Bai, aitaren negozioa zen indusketena, baina gu txikitatik egon gara hor ere, eta asko ikasi genuen. Bera hil zenean, gu hasi ginen lanean, Vanesa (ahizpa nagusia) bulegoan dago, eta ni kamioiekin.

# Barraskiloaren **oskola** amaitzean

Barraskiloaren oskola da Lizasoko Baserri Eskolako proiektu berriaren eraikin nagusia, "slow-food" eskola jasoko duena. Bioeraikuntza ikastaroaren bidez 21 ikaslek eraiki dute irakasleen laguntzaz, eta irailaren 8an amaitu zuten.



**B**eatriz Otxotorenak esan digun bezala, sei modulu izan dira, maiatzaren 15ean hasita: Lan arriskuen prebentzioa, zimentazioa, egurraren lanketa, teilatu berdeak, ahotzez eginitako paretak eta luzitzea (revoco). 5 emakume eta 16 gizonezko aritu dira, horietako bat Orkingoa.

Gela nagusi bat izanen du oskolak, non sukaldaritza ikastaroak eginen diren. Kamera bat jarriko dute sukaldearen gainean, eta pantaila bidez ikusi ahalko da prestatzen ari dena. Gela horretan bertan bestelako ikastaroak ere eginen dituzte, leku handia baitago. Komunak, labe handi bat eta

beste ere baditu eraikinak.

Teilatuan belarra ateratzen hasi da, eta hemendik gutxira belardi eder bat izanen du. Nabarmentzeko da eraikitze materialak ahalik eta gertuen lortu dituztela, egurra esaterako Jauntsarastik ekarri dute, buztina Errioxatik...

Hau amaituta, beste hiru eraikin txiki geratuko liriteke, barraskiloaren bi antenak eta buztana, baina barraskiloaren filosofiari jarraituz, presarik ez dute hori amaitzeko, mantso eta ongi egin nahi dute bidea.

**Eskualdeko ikasle bakarra dago ikastaroan, Orkingo Patxi Arraiza. Lanean zegoen bitartean hitz egin dugu berarekin:**



**Zergatik erabaki zenuen ikastaro honetan parte hartzea?**

Badira urte batzuk halako zerbait egiteko gogoia nuela, eta ikastaro hau atera zenean izena eman nuen. Hasieran langabeendako ikastaroa zen, bai-

na azkenean besteok ere sartu ahal izan gara.

**Zu lanean ari zara beraz?**

Bai, honekin harremanik ez du, haize egokituarekin egiten dut lan.

**Eta ikastaroa amaituta, bioeraikuntzan lan egiteko asmorik baduzu?**

Bai, noski. Nire asmoa da hemengo jendearekin edo ateratzen denarekin mundu honetan jarraitzea.

**Zer da ikasi duzuen?**

Ba, orokorrean, lehenengo pausotik azkenera erakitzen ikasi dugu, zimenduak egitetik, egitura eta teilatua egitera.

**Bazenuen jakintzarik lehenago bioeraikuntzaren inguruan?**

Beno, orain dela urte batzuk ikastaro bat egin nuen Arbizon, Arbizuko kanpinean. Luzitze eta dekorazio ikastaroa zen, beraz orain orokorragoa izan da.



# Ultzamako triatloiaren kronika

Urtero bezala, abuztuaren 15ean izan zen Ultzamako "cross" triatloia, eta 20. ekitaldia izan zen jada.



**L**araintzartik Leurtzako urtegiatarako bidea egin zuten kirolariek autoz, han hasten baitzen lasterketa. Ausartenek bizikletaz egin zuten bide hori, elkarrekin joateko antolatutako martxan.

Hodeiek euriaren mehatxua zekarten, eta lasterketa hasi baino lehenago tanta batzuk bota zituen, ezer handirik ez, baina lurra bustitzeko adina bai. Bizikletako zatian nabaritu egin zen lurra bustia eta irristakor zegoela.

Honela hasi ziren kirolari federatuak urtegiar igerika 500 metroko bidea eginez, eta hasiera hasieratik izen bat nabarmendu zen, Alejandro Pareja Villar errioxarra, "cross" modalitateko triatloietako Espainiako txapelduna. Minutu bat baino gehiago atera zion bigarrenari igerian, eta helmugara arte ez zuten berriz ikusi gainontzeko lehiakideek.

Kirolari federatuek bizikleta hartu eta maldan gora

hasi ziren. Bitartean, gainontzekoak igerian hasiteko prestatu ginen. Nabaria zen gure profesionaltasun eza, arropetan, bizikletetan, igerian egiteko moduan... Gutxi izan ziren igerian zuzen aritu zirenak, gehienak desbideratu egin baitziren ezkerrean zein eskuinera. Uretatik kostata atera ginen gehienak, eta bizikleta hartuta maldan gora hasi ginen gu ere.

4 km gora eta beste 9 behera egin genituen, jaitziera arriskutsu batean non Miguel Zirizak eroriko gogor bat izan eta amore eman behar izan zuen. Besteok Arraitza atera eta hortik Larraintzarra iritsi ginen, bizikleta utzi eta korrika 2,5 km egiteko. Hankak gogorturik iritsi ginen denak, banan-banan helmugara.

Lasterketa herrikoian ultzamar gehiago aritu ziren, federatuetan bat edo bi besterik ez. Ametza Kultur elkarteko webgunera igo ditugu laisterketen sailkapenak: [www.ametza.eus](http://www.ametza.eus).



BIDALI ZURE  
ALBISTEAK, ARGAZKIAK,  
TXUTXU-MUTXUAK, JAIOTZAK...  
[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)  
HELBIDERA

# Pilotalekuekin **zalantza**

Herri gehienetan dugu pilotaleku bat, bi ere batzuetan, tamaina eta forma ezberdinekoak. Odietan, bailara osoan ez da pilotalekurik, eta orain, Anotzibarko Kontzejuak herrian bat egi-tea erabaki du. Erabakia hartu dute, baina oraindik ez dute eginen, udaberrira arte itxaron behar dute horretarako. Kontzejuak jasotzen dituzten diru-laguntzak erabiliko dituzte frontoia ordaintzeko, dirua badago eta pilotan aritzeko espazio bat beharrezko ikusten dute. Beste kontzejuetan beste hainbat kontutarako erabiliko dute jasotzen duten diru hori.



Ziaurrizko elizako ataria



Ziaurrizko frontoi pribatua eta behean Anotzibarko frontoia egingo duten lekua

## Orain arte zer?

**E**san bezala, orain arte ez zegoen frontoirik Odieta osoan, salbuespen batzuk kenduta. Ziaurritzen, esaterako, pilotaleku pribatu bat dago, haurrek noizbait erabili izan dutena, baina pribatua izanik, jabearen eskuzabaltasunaren arabera funtzionatu izan da. Pilotan aritzeko beste leku bat eliza atariak izan dira. Ez bakarrik Odietan, herri askotan hori zen lekua pilotaleku handiagoak egin baino lehen, eta gaur egun ere, eliza askok daukate frontoia atarietan. Odietako bizilagunek esan digute aspaldi han aritzen zirela, eta gaur egun ere, pilotan aritzen direnean, han aritzen direla haur eta gazteak.

## Tamainaren eztabaida

**A**zken urteetan egindako pilotaleku gehienak handiak izan dira, erraldoiak batzuk. Hiru pareta, harmailak, teilatua, gelak... izan ohi dituzte frontoi handi horiek; eta, jakina, dirutza behar izaten da horretarako. Beste batzuek pareta bakarra dute, baina arraroa da egiten diren frontoi berriek pareta bakarra izatea, eta baita bi pareta izatea ere. Anotzibarkoa txikitxoia izanena da, esku pilotaz egiten den erabilera kontuan hartuta ez dute zerbait erraldoi egin nahi izan.



## Erabilera

**U**ltzama aldean beti egon da esku pilotarako afizioa, eta pilota eskola, esaterako, haur askorekin ari da. Hala ere, gutxitan ikusten dira haurrak herrietan pilotalekuetan aritzen. Eztabaida hori mahai gainean dago, eta bizilagun batzuek gurekin elkarbanatu dute, zergatik dirutza utzi frontoiak eraikitzen, gero erabilera txikia badu?

**H**onek ere beste eztabaida batera garamatza, eta irekia utziko dugu bizilagunek plazaratu diguten hausnarketa: Zertan dibertitzen dira haur gazteak? Izan ere, kaleetan eta plazetan ez dira asko ikusten direnak eta aldaketa handia nabaritu da gurean azken urteetan.





# Erriberako pinuak gurean ikusiko ditugu?

Aurreko aldizkariaren alean idatzi genizuen gaztainondoan gaitz berri bati buruz, lizortxo asiarrari buruz, hain zuzen. Zuhaitzekin zerikusia duen gai bat hartu genuen politika eta ekonomiaren globalizazioari buruz hitz egiteko. Oraingo honetan hemengo pinuen egoera izango dugu hizpide, klimaren aldaketa globalari buruz hitz egiteko.

**G**ehienok badakigu zer den klima-aldaketa; hiztegiak “lurralde edota eskualde batean denboran gertatzen den aldaketa da. Eguratsako aldaketa hauek, Lurraren barruko nahiz kanpoko prozesuez gain, gizakiak eraginda ere gerta daitezke. Honekin lotuta lurrazaleko tenperaturaren igoera dago, berotze globalaren parte dena”. Eta zer gertatzen ari da Nafarroan pinuekin? Geroz eta euri gutxiago egiten duenez, pinuak haien orain arteko eremutik “mugitzen” ari dira. Lasai, irakurle maite, momentuz zuhaitzak ez dira bere lekutik altxatu eta korrika leku hezeagoetara joaten ari, “ehunka urteren buruan” gertatzen diren fenomenoei buruz hitz egiten ari garela dio Juanillo Markina adituak. Joan gaitezen adibide praktiko batera.

**N**afarroan hiru pinu mota daude. Horietatik bi, pinu gorria eta “larizioa” deitutakoak, Nafarroako leku askotan daukagu. Eremu horietan leku txarretan kokatuak dauden zuhaitzak (errepide edo xenda baten alboan, hegoalderantz begira daudenak, eguzkiari begira daudenak, zuhaitzen arteko kompetentzia handia dagoenean...) hiltzen ari dira, futbolearen esaten den bezala “jokoz kanpo” geratzen ari baitira.

**E**torkizunera begira, orain Erriberan dauden pinuak gure eskualdean izango ditugu eta orain hemendik hurbil daudenak beste toki batzue-

tara mugitu beharko dira; normalean iparralderago eta altuago. Horrela tenperatura baxuagoak izango dituzte eta prezipitazio gehiago.

**D**uela pare bat urte jabetzen hasi ginen egoera honetaz”, esan digu Markinak, “eta beste lekuetako adituekin kontaktuan jarri ginen eta, noski, basamortutzea hedatuago dagoen lurraldeetan egoera larriagoa da. Egoera kudeatzeko estatu mailan lantalde bat osatu genuen eta ikusi genuen Mediterraneo aldean, adibidez, zer egoera duten. Balentzian milioi bat pinu hil dira bi urtetan. Argi dago ezin dela egoera guztiz alderatu, Izan ere, Alacanteko Orihuelan, 2014. urtean, 40 litro euri bota zuen urte osoan. Egoera horretan ezin da edozein zuhaitz bizi”. Andaluzian, Gaztelan eta Katalunian ere zenbait pinu barietate arazo larriak izaten ari dira. “Tokia eta egoeraren arabera espezie bat edo beste hiltzen ari dira”. Proba asko egin dizkiete zuhaitzei eta zehaztu ahal izan dute “estres hidrikoa” dela heriotzaren erantzulea.

**A**ldaketa klimatikoa borroka “globala” dela azpimarratu du Aizarotzen bizi den Juanillok: “Mediterraneo aldeko turismo ereduak ez du batere laguntzen; baina, orokorrean, CO2 igortzeak eta biomasa erretzeak sortzen dituen tenperatura igotzeak ondorio zuzenak izaten ditu naturako espezieetan”.





**2017KO MAIATZA,  
EKAINA ETA UZTAILA**  
**Gure alderdian izan ziren  
jaiotzak, ezkontzak  
eta heriotzak**

**JAIOTZAK**

**ANUE**

ETULAIN

Aratz Zalba Iraizotz, Sergio eta Amaia-  
ren semea, 2017ko uztailaren hiruan jaioa.

**BASABURUA**

UDABE

Oinatz Bildarratz Gurbindo, Sergio eta Itzia-  
rren semea, 2017ko uztailaren hamabian  
jaioa.

**IMOTZ**

GOLDARATZ

Iraitz Elizondo Astitz, Santi eta Izaskunen  
semea, 2017ko uztailaren seian jaioa. *Haize-  
leku* etxekoa.

**LANTZ**

Iosune Mariñelarena Urritza, David eta Mire-  
nen alaba, 2017ko maiatzaren 15ean jaioa,  
*Matxinean*.

**ODIETA**

LATASA

Nahia Orrio Oiartzun, Fermin eta Amaia-  
ren alaba, 2017ko uztailaren hamaikan jaioa,  
*Etxetxipian*.

**OSTITZ**

Martin Palacios Juaristi, Iñaki eta Anaren  
semea, uztailaren hiruan jaioa.

**ULTZAMA**

ALKOTZ

Ekhiñe Etxeberria Iragi, Eduardo eta Miren  
Bakarneren alaba, 2017ko uztailaren zaz-  
pian jaioa.

**ONGI ETORRI JAIO BERRIEI ETA ZO-  
RIONAK BEREN GURASOEI!**

**EZKONTZAK**

**IMOTZ**

OSKOTZ

Isabel Azpirotz Herranz, Oskozko *Juantxe-  
nekoa*, eta Iñigo Iribarren Agirre, Lekun-  
berrikoa. 2017ko uztailaren 1ean ezkondu



*Aratz*



*Oinatz  
gurasoekin*



*Iraitz eta bere  
anaia*



*Fermin, Nahia eta Amaia*



*David, seme alabekin*



*Iñaki, Ana eta Martin*



*Ekhiñe eta  
familia*





ziren. Lekunberrin biziko dira.

### ULTZAMA

LIZASO

Javier Azantza Urra, Allozkoa, eta Maria Rosario (Txari) Eleta Villabona, Lizasokoa, 2017ko ekainaren 17an ezkondu ziren.

Mila zorion ezkonberriei.



*Txari eta Javier*

ELTSO

Joseba Grajirena Juanena, Legasakoa, eta Jaione Beuntza Otsakain, Eltsokoa, 2017ko uztailaren 22an ezkondu ziren.

Legasan biziko dira.



*Edurne eta Fernando*

LARRAINTZAR

Edurne Oskotz Jauregi, Larraintzarko *Maiztenekoa*, eta Fernando Untzu Ripoll, Atarrabiakoa, 2017ko uztailaren 1ean ezkondu ziren.



*Ixabel eta Ibon*

MILA ZORION EZKONBERRIEI.

## HERIOTZAK


### BASABURUA

OROKIETA

Juan Barberia Balda, *Otxokoneko* nagusia, maiatzaren 27an hil zen 97 urtetan.



*Damaso*



*Iñaxio*


IGOA

Miguel Ezkurra Altsua, uztailaren 10ean hil zen, *Salbadoreneko* nagusia.

### IMOTZ

LATASA

Jesus Elustondo Asiain, uztailaren 3an hil zen (Ehortzi Irurtzunen)



*Jesus*



*Juaniko*

LANTZ

Florencio Martikorena Zenotz, ekainaren 25ean hil zen, *Maisternean*.

### ULTZAMA

IRAIZOTZ

Dámaso Espinal Iriberry, 2017ko ekainaren 25ean.

ELTZABURU

Inaxio Iribarren Arangoa, 2017ko uztailaren 13an hil zen.

Pilar Zia Mutuberria, uztailaren 27an hil zen.



*Miel*



*Pilar*

GURE OROIMENEAN  
IZANEN ZARETE.

# æek

euskara praktikoa



## % 100 AFEKTIBOA

EUSKARA IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

### Ultzamako AEK

**Maila guztiak · Todos los niveles**

**Guraso taldea 5/6 ordu astean**

**EGA azterketa prestatzeko ikastaroa**

**SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)**

**Taldea edo autoikaskuntza · Grupo o autoaprendizaje**

**Izena eman irailaren 27a baino lehen**

**Matricularse antes del 27 de septiembre**

**Informazioa eta izena ematea · Información y matriculación**

**948 60 47 04 edo 607 622102**

**larraun@æk.eus**

**Ultzamako AEK euskaltegia · Larraintzar**

**DIRU-LAGUNTZAK / BECAS**

**Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz  
lagundutako ikastaroak**



## NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz  
Tailer mugikorra  
Pneumatikoen aldaketa  
Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A  
Aizarotz (Basaburua)

  [info@neumaticosbetelu.es](mailto:info@neumaticosbetelu.es)  
**646 47 41 66**

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure  
pneumatikoak konpontzera  
-Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak  
-Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak  
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak  
Boletinak eta Ziurtagiriak

# KARIKOLAR

## ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**

## DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL.: 678 623866

[argapin@hotmail.com](mailto:argapin@hotmail.com)



**ZIAURRITZ**

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea  
fatxadak zaharberritzea  
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)  
kalitatea eta garbitasuna  
aurrekontuak konpromisorik gabe

